

## Redalyc: informazio baliabide berria

2013/05/07

Bibliotekak informazio baliabide berria eskeintzen dizu, Redalyc **ataria**.

**Redalyc** Hego Amerika, Karibe, Espania eta Portugaleko Aldizkari zientifikoaren sarea da.

Mexikoko Unibertsitate Autonomak bultzatuta, ekimen honek Hego Amerikako aldizkari zientifikoaren ekoizpena sarbide irekian biltzen du, eta ezagutzaren arlo guztiak jasotzen ditu.

Eduki akademikoak dituen atari honen helburu nagusien artean ondorengoak aipatzen dira: Iberoamerikako ekoizpen zientifiko nagusia biltzea, jarduera zientifikoa zabaltzea, ekoizpenaren eragina gehitzea eta informazio espezializatua eskaintzea.

280.000 artikuluko zientifikoak testu osoz eta dohainik irakurtzeko, deskargatzeko eta partekatzeko aukera ematen du.

[Informazio baliabideak-Sarbide irekiko baliabideak-Biltegi irekiak](#) ataletik sar zaitezke.



---

Redalyc